



HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN JARDUERA GARATZEKO BEHAR DIREN AHOHKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUAK ETA DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIARI DAGOZKION ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

ESPEDIENTE ZK.: 002/20

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea bi lotetan banatzen da, kontratua behar bezala gauzatzen laguntzeko.

Baldintza teknikoen agiri hau Haurreskolak Partzuergoari aholkularitza juridiko integrala emango dion enpresa bat kontratatzeke gutxienezko baldintzak dira. Era berean, agiri honen xedea da datuen babesaren eta segurtasunaren arloko aholkularitza tekniko eta juridikoko lanak kontratatzeke beharrezkoak diren baldintzak eta betekizunak zehaztea, Haurreskolak Partzuergoaren barruan datu pertsonalak babestearen arloko araudia betetzearekin lotutako jarduerari laguntza eta babesa emateko.

1.1- 1. Lotea: Aholkularitza eta ordezkariitza juridikoko zerbitzuak.

Aholkularitza juridiko globala barne hartzen duten gai guztietan espezialistak jarri beharko dira kontratuaren esku (asmo zehatzik gabe, zibila, administratiboa, merkataritzakoa, lanekoa, penala, etab.), letraduaren zuzendaritza eta edozein jurisdikziotarako prozeduretan defentsa barne.

Eman beharreko zerbitzu guztiak abokatutzan aritzean deontologia-arauak eta Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak emandako araudi guztia errespetatuz egingo dira beti.

Esleipendunak kontratuaren xede den zerbitzu arruntari erantzuteko behar diren langileak izan beharko ditu. Haurreskolak Partzuergoaren esku jarritako lantaldeko kide guztiek zuzenbideko lizentziadunak izan beharko dute, eta behar bezala elkargokideak abokatuen elkargo profesional batean.

Pertsona bat izendatu beharko da kontratuaren xede diren jardueren martxa egokia gainbegiratzeko. Pertsona horrek gutxienez 10 urteko esperientzia izan beharko du lanbidean, eta esperientzia nahikoa eta egiaztatua izan beharko du kontratu honen xede den aholkularitza juridikoan.

1.2- 2. Lotea: Segurtasunaren eta datu pertsonalen babesaren arloko aholkularitzari dagozkion zerbitzuak.

Eskatzen den zerbitzuak berekin ekarriko du aholkularitza teknikoa eta kudeaketakoa, jarraitua, integrala eta praktikoa, datuen babesaren eta segurtasunaren arloan, egoitza nagusian eta Haurreskolak Partzuergoko zentroetan.

Horretarako, Haurreskolak Partzuergoari Datuak Babesteko Ordezkararen (DPZ) irudiari dagozkion zerbitzuak emango zaizkio, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko pertsona fisikoen babesari buruzkoa) eta 3/2018 Lege Organikoaren (DPBLO) helburuak betetzeko.

Era berean, pertsona bat izendatuko da kontratuaren xede diren jardueren martxa egokia uneoro ikuskatzeko. Pertsona horrek gutxienez 3 urteko esperientzia izango du lanbidean, eta esperientzia nahikoa eta egiaztatua izango du kontratu honen xede den aholkularitzan.



Baldintza Teknikoen Agiri honetan ezarritako zehaztapenak, bai eta Administrazio Klausula Berezien Agirian jasotakoak ere, arau lotesleak dira kontratistarentzat, eta kontratistak kontratuaren xede diren prestazioak egingo ditu, haiei men eginez.

2. KONTRATUAREN XEDEA OSATZEN DUTEN PRESTAZIOEN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Zehatz-mehatz eta adierazpen gisa, kontratazioak, besteak beste, honako prestazio hauek hartzen ditu barne:

2.1- 1. Lotea: Aholkularitza eta ordezkaritza juridikoko zerbitzuak.

Lege-aholkularitza orokorreko zerbitzu profesionalak ematea eta, bereziki, jarraian zerrendatzen diren esparruetan:

a) Prestazio orokorrak:

- Haurreskolak Partzuergoak egindako kontsultak argitzea, eman beharreko aholkularitza juridikoa biltzen duten gai juridiko zehatzen barruan.
- Haurreskolak Partzuergoak eskatzen dituen txostenak egitea.
- Haurreskolak Partzuergoaren ohiko jardueran beharrezkoak diren dokumentu guztiak prestatzea eta/edo berrikustea, eman beharreko aholkularitza juridikoa biltzen duten gai juridiko zehatzen barruan.
- Aholkularitza administrazioko eta zuzenbide publikoko gaietan.
- Antzeko beste edozein, berariazkoa eta puntuala, izaera berezia edo garrantzia dela-eta agintzen zaizkion guztiak.
- Haurreskolak Partzuergoak eskatutako bilera eta hitzaldietara joatea.
- Aholkulari juridiko baten presentzia fisikoa Haurreskolak Partzuergoaren bulegoetan, beharrak direla-eta hala eskatzen zaionean, eta arreta telefonikoa edo telematikoa unean uneko kontsultak direnean..

b) Kontratazioa:

- Kontratazioari buruz egindako kontsulta guztiak aztertzea eta ebaztea. Bereziki, aholkularitza horrek honako alderdi hauek jasoko ditu:
 - o Kontratazio-organoari laguntzea dagozkion kontratazio-espedienteak izapidetzen.
 - o Lizitazio-prozedurak arautuko dituzten pleguen berrikuspena.
 - o Beharrezkoa izanez gero, gutun-azalak irekitzeko ekitaldietara joatea.
 - o Agirien eta esleipenen proposamenak kontratazioaren legezko araudira doitzeko berrikuspena eta, hala badagokio, dagokion txostena egitea.
 - o Haurreskolak Partzuergoak egin beharreko kontratuen lizitatzailerek eta/edo esleipendunek aurkez ditzaketen alegazioei eta errekursoei buruzko aholkularitza.
 - o Defentsaren arloko aholkularitza kontratazioaren arloan.
 - o Bere kontratuekin zerikusia duen beste edozein gairen inguruan sor daitekeen arazo juridikoari buruzko laguntza.



c) Lan-arlokoa:

- Haurreskolak Partzuergoko langileei aholkularitza ematea lan-gaietan, hala nola:
 - o Haurreskolak Partzuergoko zuzendaritza eta ordezkaritza, lan-arloko jurisdikzioaren esparruan sortzen diren mota guztietako auzietan.
 - o Banakako lan-harreman arruntei eta bestelako lan-harreman bereziei buruzko aholkularitza.
 - o Praktiketako ikasleen arloko aholkularitza.
 - o Lan-kontratuaren iraungipenei buruzko aholkularitza, modalitate guztietan.
 - o Enpresako lan-harreman kolektiboari eta eskubide sindikalari buruzko esku-hartzea eta aholkularitza; negoziazio kolektiboko prozesuak, enpresan sor daitezkeen gatazka kolektiboak, eta abar.
 - o Haurreskolak Partzuergoak bereziki konplexuak, zabalak edo garrantzitsuak diren lan-gaiei buruz eskatzen dituen txostenak idaztea, bai eta dedikazio espezifiko eta jarraitua eskatzen duten lanak egitea ere. Horien artean nabarmentzekoa da Haurreskolak Partzuergoaren urteko kontuen auditoretzarako prozedura judizialen bilakaerari buruzko txostena.
 - o Lan Ikuskaritzak irekitako era guztietako zehapen-espedienteei laguntza teknikoa ematea (lan-istripuak, laneko jazarpena, etab.).

d) Defentsa:

- Haurreskolak Partzuergoaren zerbitzura lan egiteagatik demandatua edo inputatua izan den langile hautetsi, funtzionario eta lan-kontratudunen abokatu-laguntza eta epaiketetako defentsa. Jar daitezkeen baliabide guztiak prestatzea.
- Haurreskolak Partzuergoaren zuzendaritza eta ordezkaritza administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, jurisdikzio zibilean edo merkataritza-jurisdikzioan sortzen diren mota guztietako auzietan.

e) Merkataritzakoa:

- Merkataritza-zuzenbideari buruzko kontsultak aztertzea eta ebaztea.
- Merkataritza-dokumentuak prestatzen laguntzea.
- Bileretara joatea, pertsona edo erakundeekiko harremanak, negoziazioak, elkarrizketak ...
- Haurreskolak Partzuergoari aholkularitza ematea Zuzendaritza Batzordeak azertu beharreko gaietan.

2.2- 2. Lotea: Segurtasunaren eta datu pertsonalen babesaren arloko aholkularitzari dagozkion zerbitzuak.

Adierazpen gisa, honako jarduera hauek nabarmentzen dira:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (DBEO), eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (DBLO) aplikatzeari buruz egiten diren kontsultak aztertzea eta ebaztea. Datuen babesaren arloan aplikatzekoak.



- Prozeduren zuzendaritza datu pertsonalen babesaren arloan eskumena duten erakunde administratibo eta/edo judizialen aurrean.
- Datu pertsonalen babesaren arloan eragina duten kontratu-dokumentuak berrikustea eta idaztea.
- Haurreskolak Partzuergoaren datuak babesteko sistemaren kontsultak ebatzea, prestakuntza-ekintzak proposatzea eta araudia egokitu, mantendu eta betetzea.
- Egoera-txostenak egitea eta, aldian-aldian, datu pertsonalen babesaren arloko proaktibitatea eta betetze-maila egiaztatzea ahalbidetzen duen beste edozein txosten.
- Datuak babesteko ordezkari bat izendatzea, eginkizun nagusi hauek izango dituenak:
 - o Tratamenduaren arduradunari edo eragileari informazioa eta aholkuak ematea.
 - o Arduradunak edo eragileak DBEO betetzen duela gainbegiratzea, arduradunak esleitzea, langileen kontzientziak eta prestakuntza eta dagozkien auditoriak barne.
 - o Eraginaren ebaluazioei buruzko aholkularitza ematea eta haien aplikazioa gainbegiratzea.
 - o Lankidetzan aritzea eta kontrol-agintaritzarekin harremanetan jartzea.
 - o Laguntza eta lankidetzak, datuen babesaren arloko barne-prozedurak koordinatzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko (gorabeherak, erabiltzaileak administratzea, eskubideak baliatzea, euskarriak kudeatzea, klausulak edo legezko abisuak berrikustea...).
 - o Datuak babesteko erregelamenduaren edo aplikatu beharreko legediaren arabera, datuak babesteko ordezkariari dagozkion datuei buruzko beste edozein laguntza- eta aholkularitza-lan.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen prezioa, gutxi gorabehera, zenbateko honetakoa izango da:

3.1- 1. Lotea: Aholkularitza eta ordezkariak juridikoko zerbitzuak

Gehienez 50.094 euro urtean, honela banakatuta: 41.400 euro gehi BEZari dagozkion 8.694 euro (% 21).

Enpresa esleipendunak emandako zerbitzuen gehieneko prezioa orduko 115 eurokoa izango da (BEZik gabe).

Ezin izango dira fakturatu Haurreskolak Partzuergoak agindutako gaietan emandako orduak, baldin eta, enpresa esleipenduneko langileen praxi desegokia dela eta, agindutako helburuak lortzea bideraezina bada; hau da, epeak eta administrazio-baldintzak eta prozesu-baldintzak ez betetzea, eta hori guztia langile horiek izan dezaketen erantzukizun zibilari kalterik egin gabe.

3.2- 2. Lotea: Segurtasunaren eta datu pertsonalen babesaren arloko aholkularitzari dagozkion zerbitzuak.

Gehienez 7.865 euro urtean, honela banakatuta: 6.500 euro gehi 1.365 euro BEZarenak (% 21).

Enpresa esleipendunak emandako zerbitzuen gehieneko prezioa orduko 65 eurokoa izango da (BEZik gabe).



Kontratuaren prezioa kontratistaren langileek edo profesionalak Haurreskolak Partzuergoak eskatutako aholkularitza juridikoko zerbitzuak ematen emandako orduen arabera ordainduko da; horretarako, lizitatzailleek eskatutako zerbitzua emateko esleitutako profesionaleri dagokien orduko prezioa eskaini beharko dute.

Enpresa lizitatzailleek orduko dagokion prezioa eskaini beharko dute, eta proposamen ekonomikoan lehen aipatutako prezio unitarioa murriztu ahal izango dute. Ez da onartuko lizitazioaren gehieneko prezio unitarioa gainditzen duen proposamenik (hau da, 115 euro/orduko 1. loterako eta 65 euro/orduko 2. loterako).

Lizitatzailleek eskaintako prezio unitarioan tasa ofizialen zenbatekoa eta jarduera egiteari legokiokeen beste edozein zerga sartu beharko dira.

Kontratuaren prezioa honako hau izango da: kontratua gauzatzean benetan emandako eta justifikatutako orduen kopuruari kontratistak eskaintako unitate-prezioei aplikatzearen emaitza.

Lanen ondorioz sortzen diren dietak eta joan-etorrien gastuak sartuko dira zenbatekoaren barruan.

4. KONTRATUAREN IRAUPENA

Zerbitzu-kontratuaren iraupena 2 urtekoa izango da, eta bi aldeek hala adosten badute, urtero luzatu ahal izango da, amaitu baino lehen, hiru urtez; luzapenak barne, bost urteko gehieneko epea izango du.

5. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

Administrazio-klausula zehatzen agirian ezarritako irizpideak baloratzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Formulak aplikatuz automatikoki ebalua daitezkeen irizpideen kasuan:

- Proposamen ekonomikoa, II. eranskinean deskribatutako ereduaren arabera.
- Formula bidez ebaluatu daitezkeen irizpideak proposatzeko eredia (VIII. eranskina).

b) Formularen bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen kasuan, irizpide horiek aplikatzeko balio-judizioa egin behar bada:

- Memoria teknikoa:

Lizitatzaille bakoitzak txosten tekniko bat aurkeztuko du, jarraituko den metodologia deskribatuko duena, bai eta preskripzio tekniko berezien agiri honetan deskribatutako jarduketa bakoitzari heltzeko modua ere, aholkularitzak izan ditzakeen alderdiak kontuan hartuta.

Eskaintako zerbitzurako talde iraunkor bat jarriko da, eta memorian, taldearen deskribapenez gain, atxikitako kide bakoitzaren erantzukizun-maila zehaztuko da.

Kontratuari atxikitako lantaldearen organigrama zehaztuko da, eta honako hauek zehaztuko dira: antolaketa-egitura, zerbitzua ematen dela bermatzeko kontratuari esleitutako giza baliabideak eta baliabide materialak, eta zerbitzua ematen parte



hartzen duten eragileen arteko koordinazioa eta talde-lana sustatzeko beharrezkoak diren rolak zehaztuko dira.

Horrez gain, lote bakoitzeko honako hau zehaztuko da:

Lote 1: Aholkularitza eta ordezkari-tza juridikoko zerbitzuak.

Gutxieneko baldintza izango da esleipendunak proposatutako lantaldeak gutxienez bi profesional izatea abokatu jardule gisa elkargokide, eta gutxienez 3 urteko antzintasuna izatea abokatutzan. Gutxienez 3 urteko lanbide-esperientzia frogagarria egiaztatu beharko dute, ahal dela zuzenbide administratibo, publiko, laboral eta zibilarekin lotutako gai juridikoetan, besteak beste, eta auziei eta prozesuari buruzko aholkularitzari buruzko jardueretan.

Horrez gain, pertsona bat izendatuko da kontratu honen xede diren lanak gainbegiratzeko, gutxienez 10 urteko esperientzia duena lanbidean, eta esperientzia nahikoa eta egiaztatua kontratu honen xede den aholkularitza juridikoan.

Lote 2: Segurtasunaren eta datu pertsonalen babesaren arloko aholkularitzari dagozkion zerbitzuak.

Esleipendunak proposatutako lantaldeak gutxienez bi profesional izan beharko ditu, honako lanbide-profil hauekin bat datozenak eta kontratuari esleituak: zuzenbideko lizentziaduna edo goi-mailako graduduna den pertsona bat, gutxienez 3 urteko elkargokide profesionala duena, eta goi-mailako ingeniaria, lizentziaduna edo goi-mailako graduduna den pertsona bat. Bietako batek DPZ ziurtagiria izan beharko du, ziurtapen-erakundeak egiaztatua, eta masterra edo goi-mailako ikastaroa, datuen babesari, informazioaren segurtasunari eta teknologia berrien zuzenbideari edo baliokideari buruzkoa, 200 ordukoa edo hortik gorakoa.

Horrez gain, pertsona bat izendatuko da kontratuaren xede diren jarduerak ikuskatzeko. Pertsona horrek gutxienez 3 urteko esperientzia izango du lanbidean, eta esperientzia nahikoa eta egiaztatua izango du kontratu honen xede den aholkularitzan.

- Lan-programa:

Programa bat zehaztu eta garatu beharko da, non lanaren antolaketa eta plangintza deskribatuko den, eta zenbait alderdi adieraziko diren, hala nola lana egiteko barne-antolamendua, koherentea izango dena esleitutako giza baliabideekin eta eskainitako baliabide materialekin.

Lanak garatzeko eskaintzen diren proposamenak eta horien kontrolak argi eta garbi azalduko dira, enpresa lizitatuak egingo dituen jarduera guztien definizio argi eta zehatzekin.

Gutxienez, honako hauek zehaztuko dira:

- * Kontratuaren xede den gaiari buruzko aholkularitza jarraitua, integrala eta praktikoa emateko garatu nahi diren jardueren ezaugarriak eta zerbitzua emateko modua.
- * Oro har, zerbitzuak emateko ordutegiak zehaztea.
- * Lantaldearen berezitasunekin koordinatuta, erantzuteko gaitasuna zehaztea.



- Euskararen erabilera harreman eta komunikazioetan:

Kontratuaren exekuzioari atxikitako bitartekoek egingo duten euskararen erabilera zehaztu beharko da.

Era berean, kontratua gauzatzeko erabiliko den dokumentazioan euskararen erabilera-maila zehaztuko da.

- Informazio-sistema:

Haurreskolak Partzuergoaren eta lanaren esleipendunaren arteko harremana nola gauzatu den adieraziko da, zein solaskide esleituko diren eta atxikitako baliabideen eskuragarritasun-maila, asistentzia pertsonalizatua eta/edo urrutiko asistentzia adierazita, bai eta arreta- eta asistentzia-ordutegia ere.

6. LANEN KONFIDENTZIALTASUNA

Erabat debekatuta dago Haurreskolak Partzuergoaren informazioa kontratu hau gauzatzeko helburuez bestelako helburuetarako erabiltzea, eta konpromisoa hartzen du informazio hori ez kopiatzeko eta kopiarik ez lortzeko. Sekretupean gorde beharko ditu kontratuaren xede diren lanak direla-eta eskura ditzakeen datuak.